

# Hamazazpi

2017ko negua



Ayuntamiento de Zigoitia  
Zigoitiko Udala



- 'HERRI TXIKI, INFERNU HANDI' SAIOAREN BISITA
- GORBEIALDEKO DANTZA TOPAKETA, BENGOLARRAN
- %16,7KOA DA KALEKO EUSKARAREN ERABILERA ZIGOITIAN
- ELKARLANEAN EGINDAKO MURALA, GAZTETXEKO HORMETAN
- ARGITERIA PUBLIKOA, HOBEAGO ETA MERKEAGO LED ARGIEKIN
- ZAINDUZ FISIOTERAPIAKO AZUCENA FLORES ETA MAIALEN FDEZ. DE LARREA

## Hasteko...



### 04

- Argiteria publikoa, hobeago eta merkeago LED argiekin
- Etxabarri – Ibiñako araztegia, IHOBE Saria



### 10 Elkarrizketa

Azucena Flores Santano eta Maialen Fernandez de Larrea Baz, *Zainduz Fisioterapiako* arduradunekin hitz egiten dugu

## Hemen eta orain



### 05 Grafiti bat gaztetxeko hormetan

Herritar guztiei irekitako proiektua da, Eva Mena muralgileak gidatuta



### 12 Eguneko Arretarako Landa Zentroko kolaborazioa

Etxeko erroskillara goxo-goxoak



### 07 %16,7koa da kaleko euskararen erabilera Zigoitian

Soziolinguistika Klusterrak egindako ikerketaren arabera



### 13 ZIGOITIARRAK, Isidro Saenz de Urturiren eskutik

Zotina kentzeko erremediorik onena (baina siestarik gabe utziko zaitu)



### 08 'Herri txiki, infernu handi' saioaren bisita

Zigoitian grabatutako etb1ko programa iruditan



### 14 La colaboración de Javier Arbulu

Perpau simple eta konplexuak

## Liburutegitik, maitasunez

Staff

**HAMAZAZPI.** Zigoitiko Udaleko aldizkaria · 2017ko negua

**Azala:** Eva Mena, Santamarina (Bilbao). **Editatzailea:** Zigoitiko Udala\_ Kultura Saila · Bengolarra, 1 01138 ONDATEGI (ARABA) · T\_ 945 46 40 41 · [www.zigoitia.eus](http://www.zigoitia.eus) · [zigoitia@zigoitia.eus](mailto:zigoitia@zigoitia.eus)

**Koordinazioa eta erredakzioa:** Rosa Ortiz de Mendivil · [romendivil@gmail.com](mailto:romendivil@gmail.com)

**Diseinua eta maketazioa:** Hirudesign Web Estudio S.L · [www.hirudesign.com](http://www.hirudesign.com)

**Imprimaketa:** Gráficas Irudi · [www.graficasirudi.es](http://www.graficasirudi.es) · **Ale kopurua:** 1.020 ale · **Lege-gordailua:** VI-67/08 Aldizkari honetako testuak edota argazkiak kopiaatzeko, editatzaileari baimena eskatu behar da.

**HAMAZAZPI Facebooken ere irakur dezakezu:** [www.facebook.com/hamazazpialdizkaria](http://www.facebook.com/hamazazpialdizkaria)



## Memoria Historikoaren berreskurapena

# Iluntasunetik argitasunera- Ahanzturatik memoriara

## Zestafen aurkitutako gorpuzkiak, Elgoibarko Duintasunaren Kolunbarioan hilobiratuta daude jada

2005ean, Zestafeko hilerria eraberritzeko lanak egin zirenean, Gerra Zibilean hildako pertsona baten gorpua agertu zen. Aranzadi Zientzia Elkartek, saiatu zen arren, ezin izan zuen identifikatu. Gorpuzki horiek Elgoibarko Duintasunaren Kolunbarioan daude, joan den urtarrilaren 29tik. Egun horretan, omenaldi hunkigarri batean, 27 pertsonaren gorpuk, ezezagunak gehienak, hilobiratu ziren 'pertsona horien oroimena gordetzeko, eta demokrazia eta askatasunaren alde euren bizitza eman zutenen eredia goratzeko', esan zuen Iñigo Urkullu lehendakariak. Bertan egon ziren biktimen familiakoak, Memoria elkarteko kideak eta gorpuzkiak



Argazkia: IREKIA.

aurkitu zituzten Euskadiko 12 udalerrietako ordezkariak, horien artean, Legutio eta Zigoitiko agintariak.

### 2017ko Zergadunen egutegia

#### TRAKZIO MEKANIKODUN IBILGAILUEN ZERGA

##### Borondatezko epea:

2017-03-01 \_ 2017-04-30

##### Helbideratutako ordainagiriak

##### kobratzeko data:

Apirilaren hasieran

#### LANDA HIGIEZINEN ZERGA

##### Borondatezko epea:

2017-05-01 \_ 2017-06-30

##### Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko data:

Lehenengo epea (kuotaren %50a)  
– Ekainaren hasieran

Bigarren epea (kuotaren %50a) –  
Urriaren hasieran

#### ORDAINTZEKO LEKUA ETA MODUA

#### INFORMAZIOA, ZERBITZUAK ETA GESTIOAK

Udaletxea. Telefonoa: 945 46  
40 41. Astelehenetik ostiralera  
9:00etatik 14:00etara. Faxe: 945  
46 40 52, e-mail:  
zigoitia@zigoitia.eus

#### Finantza-erakundeetan helbideratu gabeko ordainketak

##### Ordaintzeko lekuak:

Kutxabank eta Euskadiko  
Kutxaren bulegoetan.  
Internet bidez, web orri  
honetan: [www.zigoitia.eus](http://www.zigoitia.eus)  
(Nire ordainketa).

#### Finantza-erakundeetan helbideratutako ordainketak

Zigoitiko Udalak zuzenean  
kudeatuko du ordainketa,  
helbideratu den finantza-  
erakundearen kontuan.

#### HIRI ONDASUN HIGIEZINEN ZERGA ETA EZAUGARRI BEREZIKO ONDASUN HIGIEZINEN ZERGA

##### Borondatezko epea:

2017-05-01 \_ 2017-06-30

##### Helbideratutako ordainagiriak

##### kobratzeko data:

Lehenengo epea (kuotaren %50a)  
– Ekainaren hasieran

Bigarren epea (kuotaren %50a) –  
Urriaren hasieran

#### ZABOR-BILKETAREN TASA

##### Borondatezko epea:

2017-05-01 \_ 2017-06-30

##### Helbideratutako ordainagiriak kobratzeko data:

Ekainaren hasieran

## Argiteria publikoa, hobeago eta merkeago LED argiekin

### Teknologia berria jarriko du Udalak Zigoitiko 11 herritan

Duela 2 urte Etxabarri-Ibiñako sektore batean proba bat egin zen eta % 40ko murrizketa lortu zen kontsumoan. Esperientziaren arrakasta ikusita, Zigoitiko 11 herritan LED teknologia ezarriko du udalak. Ohiko sodio baporeko lanparak kenduko dira eta LED bonbilla jarriko dira. Helburua da kontratatutako potentzia elektrikoa jaitea (lanpara berriek 60 W inguru kontsumitzen dute, zaharrek aldiz 150 W), kontsumo energetikoa murriztea eta zerbitzuaren kostua gutxitzea.

Proiektua aurrera eramango da Lan eta Zerbitzuen Foru Planari esker. Hasiera batean udalak eskatu zuen udalerriko herri guztietan egitea. Baina Aldundiak herrietako lanak egiteko

diru-laguntza ematen du, bakarrik, beren instalazioak txarrak edo oso txarrak kalifikatzen baditu. Hori dela eta, lanak herri hauetan egingo dira: Okoizta, Berriano, Eribe, Etxabarri-Ibiña, Etxaguen, Gopegi, Larrinoa, Letona, Manurga, Mendarozketa eta Ondategi.

Gaur egun udalerrian dauden 1.165 farolen erdia baino gehiago aldatuko dira (603 ale). Gainera, altuera handiago batean jarriko dira era argiztapena homogeneizatuko da, LED argiek sortzen duten argi sorta kontzentratuagoa baita. Lanek 226.132,27 euroko aurrekontua daukate eta enpresarekin sinatutako kontratuaren arabera, datorren abuzturako amaituta egon beharko dira.

## Etxabarri - Ibiñako araztegia, IHOBE Saria



Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Kudeaketarako sozietate publikoak, IHOBEk, Etxabarri-Ibiñako araztegi ekologikoa Euskadiko 10 ingurumen-praktika onenen artean sartu du.

Etxabarri-Ibiñan hondakin-urak jasotzeko baltsa bat zegoen, baina herritarren hazkundearekin, txiki geratu zen. Gainera, lokatzez beteta zegoen eta bere funtzio arazgarria ezin zuen bete. Horrek guztiak lokatzak ezabatzeko gastu handiak eta isurketa desegokia eragiten zituen. Gauzak horrela, eta araztegi berria

eraikitzeko baliabiderik ezean, 2015ean erabaki zen macrofitas- landare iragazki bat flotazioan jartzea.

Oso sistema erraza da: landareek lokatzak jaten dituzte, aireko oxigenoa uretara eramanez eta sustraiek ioi kutsatzaileak iragazten dituzte zuzenean. Emaitzak oso positiboak dira: mantengastu minimoak, kiratsen murriztapena, isurketaren kalitatean hobekuntza... Gainera, baltsa naturan integratu da eta uretako espezie ezberdinek egin dute habia.

**Herritar guztiei irekitako proiektua da, Eva Mena muralgileak gidatuta**

## Elkarlanean egindako murala, gaztetxeko hormetan



Ondategin dagoen gazteen prefabrikatuetan, *gaztetxean*, udalerriko neska mutilak biltzen dira elkarrekin egoteko, nagusien begiradapetik kanpo hitz egiteko, musika egiteko, pentsatzeko... Gazteriaren sormenerako esparrua dugu, nolabait. Baina, egia esan, kanpoko itxura grisa ez dator bat barruan egosten denarekin. Beno ba, hilabete batzuk barru erabat aldatuko da hori. Udalak bultzatuta, Zigoitiko Zentro Soziokulturalaren bitartez, gazteek, Gorbeaiako Eskolako gurasoen elkarteak, Eguneko Arretarako Landa Zentroko adinekoek eta, momentuz, Zubialde Emakumeen Elkarteak prefabrikatuetako hormak bizitzaz beteko dituzte, goitik behera, mural bat margotuta.

Taldea ez dago itxita. Justu kontrakoa:

belaualdiarteko ekimen hau, herritar guztiei irekita dago. Ez duzu artez edo pinturaz jakin behar. Ondo pasatzeko eta elkarren artean ikasteko gogoia izatea, aldiz, ezinbestekoa da. Lehenengo partaideak pasa den martxoaren hasieran bildu ziren, tailer batean, ideiak proposatzeko eta Aste Santuaren ondoren hasiko dira margotzen. Ez dira bakarrik egongo, ordea, eginkizun horretan. Eva Mena, mural eta grafiti egilea, zuzendaritza artistikoaz arduratuko da. Tanger, Brasil, Frantzia, Egipto eta Palestinan lan egin ondoren, artista gurera ailegatuko da hain berezia den *margolari* taldea gidatzeko.

**Info gehiago:** Zigoitiko Zentro Soziokulturala  
T\_ 945 46 44 00 · [www.evamena.com](http://www.evamena.com)

### Martxoaren 8a eta II Berdintasun Jardunaldiak

Berdintasunerako lan taldeak deituta, udalerriko emakumeek hartu zuten parte Martxoaren 8an, Emakumeen Nazioarteko Egunean. 'Zigoitiko feministak. Orain eta beti' lemapean Bengolarran elkartu ziren lehenik, hortik Gasteizera abiatzeko. Arabako hiriburuan, erdigunean ibili zen martxa aldarrikatzailean bere lekua hartu zuten, beste hamaika mila lagunekin.

Horrekin lotuta, urrian egingo dira II Berdintasun Jardunaldiak. Besteak beste, honako gaiak aztertuko dituzte: 'emakumeak eta kirola' eta 'emakumeen papera administrazio hurbilenean, kontzejuetan'. Berdintasunerako lan taldeak interesa duten pertsona guztiei parte hartzera deitzen die, guztion artean berdintasuneko gizarte bat eraiki ahal izateko.



## Gorbeialdeko Dantza topaketa

Maiatzaren 20an, Bengolarran, Zigoitiko *Oketa Alai Dantza Taldeak* antolatuta



'Gorbeialdean dantzazale asko eta maila handia dago baina, hemen behintzat, gutxi ikusten dira dantzak'. *Oketa Alai Dantza Taldeak* egindako adierazpena da hori, eta, gainera, azpimarratzen du azkeneko Arabako Koreografia txapelketako 'lehenengo postua Zuiak irabazi zuela, bigarrena Zigoitiak eta hirugarrena Urkabustaizek'. Hori guztia ikusi ondoren, Zigoitiko taldeak aspaldi buruan zuen ideia bat aurrera eramateko aitzakia aurkitu du, eta Gorbeialdeko Dantza topaketa antolatuko du datorren maiatzaren 20an.

'Oraindik partaideen izenak ez daude erabat erabakita, baina esan dezakegu oso egun polita izango dela eta Bengolarra betetzeko asmoa dugula. Bi ordu inguruko erakustaldia izango da eta *Oketa Alai*ko neska mutil guztiek dantzatuko dute. Izan ere, Zuiako eta Urkabustaizko taldeek baieztatu digute etorriko direla. Eta Aramaioko taldearen erantzunaren zain gaude. Programari dagokionez, Arabako txapelketan irabazi zuten 3 koreografiak ikustea espero dugu, aurreratu digute.

Hurrengo asteetan, ohiko egutegiaz gain (entseguak, kurtsoko plangintza...) festibala antolatzeari ekingo diote. Badakite laguntza

beharko dutela, horregatik, jende guztiari parte hartzeko gonbitea luzatzen diote: 'familiakoak, lagunak, gure dantzarien gurasoak, beste taldeetakoak... denak dira ongi-etorriak'. *Oketa Alai* taldeko kudeaketaz arduratzen den ekipoak udalaren kolaborazioa ere eskertu nahi du: 'etapa berri hau martxan jarri dugunetik, beti izan dugu udal arduradunen laguntza eta Kultura arloko profesionalena. Aldi honetan Bengolarrako instalazioak utzi dizkigute, gure ekintzak zabaltzen laguntzen digute... Taldearentzat eta ordezkatzeko duenarentzat alde ekonomikoa baino askoz garrantzitsuagoa da hori'.

### Otras citas para ver a *Oketa Alai*

- Apirilaren 22an, Zigoitiko Zentro Soziokulturalean, *Alos Quartet* taldearekin batera
- Ekainaren 25ean, Ondategin egingo den Arabako Dantzari Egunean, Gorbeialdeko Inguruetako Zaldien Egunean

**Info gehiago:** [oketaalaidantza@hotmail.com](mailto:oketaalaidantza@hotmail.com)

facebook  **Oketa Alai Dantza Taldea**

## Soziolinguistika Klusterrak pasa den udazkenean egindako ikerketaren arabera

### %16,7koa da kaleko euskararen erabilera Zigoitian



2016ko urrian egindako neurketaren emaitzen arabera, umeak dira Zigoitiko kaleetan euskara gehien erabiltzen dutenak. Segidan datoz helduak eta gazteak. Eta, nabarmentzeko moduko datua: erabilerak jauzi handia egiten du umeak eta helduak nahasian daudenean.

Udalak hala eskatuta, Soziolinguistika Klusterrak 20 orduz egin zuen euskararen kale-erabileraren neurketa, iazko urrian, aste barrukolau egunetan, eta asteburuko beste lautan. Era honetako neurketak egiteko erabiltzen den teknika 'behaketa zuzenarena' da. Hau da: neurtzaileek, ezertxo ere galdetu gabe, herriko kaleetan zehar topatzen duten jendeak darabilen hizkuntza jasotzen da. Horrela, neurketak modu zuzenean jasotzen du behaketa egiten den kaleetan euskarak duen presentzia.

Neurketa egiteko ibilbide bat adostu zen neurtzaileekin. Ahalik eta laginik zehatzena jasotzeko asmoz, Bengolarra inguruan izan zuen gune nagusia ibilbideak (zentro soziokulturala, udaletxea, Bengolarra frontoia eta taberna, parkea, Artzegei taberna...), inguru horretan egiten baitute zigoitiarrek kale-bizitarik handiena. Guztira, 396 elkarrizketa neurtu dira; elkarrizketa horietan 1.302 lagunek hartu dute parte.

Daturik nagusia izenburuan jaso duguna da: %16,7koa izan zen, neurketa egin bitartean, euskara erabili zuen jende-kopurua, eta %83,3koa izan zen gaztelaniaren erabilera. Beraz, euskara eta gaztelania ez den beste hizkuntzarik ez zuten entzun neurtzaileek. Euskaraz entzundako elkarrizketetatik, umeak

(2-14 urte) izan ziren euskara gehien erabili zutenak (%24,7). Helduen (25-60 urte) erabilera %15,5ekoa izan zen; gazteena (15-24 urte) %10,6koa, eta, azkenik, adinekoena (60 urtetik aurrera) %2,7koa.

#### Umeak, euskara bultzatzaileak

Nabarmentzeko modukoa da, era berean, erabilera datuak oso baxuak direla adin tartean nahastu gabe daudenean. Hau da: umeak umeekin daudenean erabilera %3,8koa da, eta helduak helduekin daudenean, %6,1ekoa. Baina helduak eta umeak nahasita daudenean, %35era igotzen da euskararen erabilera.

Lehenengo aldiz egin da era honetako neurketa bat Zigoitian, eta, beraz, ez dugu aukerarik aurretik jasotako erabilera-datuekin konparazioak egiteko. Euskara dakien jende kopurua asko igo da azken urteotan, eta pentsatzekoa da kaleko erabilerak ere, azken urteotan, gora egin duela. Noski: ezagutzaren eta erabileraren arteko aldea handia da oraindik, eta, neurketa honek, euskararen berreskurapen-lanetan jarraitu beharreko ibilbidea markatzen digu, nolabait.

Neurketaren emaitza guztiekin Soziolinguistika Klusterrak egindako txostena udalaren webgunean [www.zigoitia.eus](http://www.zigoitia.eus) dago ikusgai.

# ETB 1eko 'Herri txiki, infernu handi' saioaren bisita

Zigoitian grabatutako programa denboraldiko ikusiena izan da, 153.000 ikuslerekin



Pasa den urtarrilean Zigoitian grabatu zen ETB 1eko programa. Zuhaitz Gurrutxaga eta Mikel Pagadi aurkezleak gure udalerrian zehar ibili ziren, gure mamia aurkitu nahian. Abentura hotz horretan - eskiak eta guzti ekarri zituzten!- asko dibertitu ziren eta gure herritarrik xebleenak ezagutu zituzten. Sebastian Lizaso bertsolariak laburbildu zuen bezala, 'Urrerik ez

genuen aurkitu, baina urrezko giroa bai'. Hemendik, saioaren grabaketan parte hartu zuten pertsona guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu. Bide batez, gure udalerrikoa izan da denboraldi osoan programarik ikusiena, 153.000 ikuslerekin. Argi dago Zigoitia gustagarria dela, hemen barruan eta baita kanpoan ere.







## Azucena Flores Santano eta Maialen Fdz. de Larrea, Baz, Zainduz Fisioterapia ko arduradunak "Bai, haztea posible da. Eta landa gunean. Eta garai hauetan!"



'Ezer ez da kasualitatea. Eta *Zainduz*-ek errotutako izaera dauka, baita antzinakoa ere, Maialenen familia zigoitikoak baita, bi aldetatik, ama Muruakoa eta Apodakako aita, kontatu digute.

Maialen eta Azucena emakumeak dira, biak amak, eta biak optimistak. Bizitzaren alde ona ikusi ohi dute eta, bere lanetik, gainontzekoei ondo sentitzen laguntzen diete. Horretarako, funtsezkoa da mina ezabatzea. Hori da *Zainduz Fisioterapia*n, Zigoitiko eta Gorbeialdeko Kuadrillako lesioak eskuz errekuperatzeko martxan jarritako lehenengo zentroan duten helburuetako bat, hain zuzen ere. Duela urte t'erdi ireki zuten, baina aspaldiko ezagunak dira. Sorian topo egin zuten, fisioterapia diplomatura ikasten. Mutualitateetan, Gasteizko zentro pribatuetan, Osakidetzan, eta Frantzia eta Bartzelonako ospitaletan lan egin ondoren, 2014an Zigoitiko ekintzaile lehiaketa batera aurkeztu ziren. Euren proiektua izan zen aukeratua. Gaur, egunero sendotzen doan errealitate bat da, eta Arabako Emakume Enpresarien Elkarteak, AMPEAK, bultzatutako sarietan 'Emakumea eta Ekonomia Soziala' kategoriako finalistak izan dira.

### Zer da Zainduz Fisioterapia?

Kooperatiba profesional txiki bat da, banakako fisioterapia tratamenduak eskaintzen dituen: lesioak errekuperatzea, ebakuntza ondoko errehabilitazioa eta, ebakuntzaren aurretik, geroko errekuperazioa errazten duten tratamenduak. Hori guztia teknika natural ezberdinak erabiliz: eskuzko terapia, ziztada lehorra, kinesiotaping-a... Eta taldeko jarduerak ere antolatzen ditugu, esate baterako, Bizkar Eskola, Gimnasia Abdominal Hipopresiboa eta Haurtxo Masajeak.

Lan egiten dugu lesioen bat edo muskuluetako edo hezurretako mina duen edonorekin, abdomena eta perineoa indartu

behar dutenekin, bizkarreko mina sufritzen dutenekin, eta baita iktus baten ondoren, eta ebakuntzaren aurretik eta ondoren errekuperatu nahi dutenekin ere.

### - Noiz jaio zen enpresa eta zergatik?

Duela 3 urte Maialenen gurasoen etxera heldu zen udalaren zirkular bat, Gopegiko Urisolo kaleko 4. zenbakian proiektu bat kokatzeko lehiaketa bat iragarri. Elkarri horren berri eman genion, gure ideia aurkeztu genuen eta aukeratu egin zuten. Hortik aurrera, eta gure familien inplikazioari esker, gure proiektuari itxura emateko odisea hasi zen.

### - Nola izan da negozio bat martxan jartzeko esperientzia?

Lokala udalarena da eta, egia esan, hasieratik bere laguntza eta aholkularitza izan dugu, oso era hurbilean.

Batzuek zioten 'lonja atera genuenean, ez genekien zer nolako enpresak funtzionatu ahalko zuen. Beharbada ile apaindegi bat, fruta denda bat... eta bai! Zuenak funtzionatu ahal du. Hemen guztiak oso txarto baikaude!'

Gainera, lehenengo hiru urteetan alokairua diruz lagunduta dagoenez, errazagoa da irekitzeko gastuei aurre egitea.

### - Nolakoa da urte hauetako balantzea?

Urte t'erdi igaro da zentroa ireki genuenetik. Azkar pasatu da, bizia izan da eta balio izan du proiektua gurea sentitzeko, gurekin fidatu diren pertsona guztiak lotzeko eta pixkanaka-pixkanaka hazteko, kontziliazioaren helburua lortzeko erabaki irmoa hartuta.

### - Langile autonomoak zarete, krisi betean jaio zineten eta gainera hazten ari zarete. Posible da?

Bai, urtarrilean, Urrunagatik, Itzal iritsi zen eta hiru gara jada. Oso pozik gaude eta espero dugu hazten jarraitzea eta Gorbeialdeko eskualdean eskaintzen ditugun zerbitzuak hobetzea. Berez, berak Bizkarreko Eskolako klaseak ematen ditu, asteartero, eta horrela hasieratik eskaintzen ditugun Gimnasia Abdominal Hipopresiboko tailerrak gehitu ahal ditugu. Beraz bai, garai hauetan eta landa gunean haztea posible da... Nahi duzuna egiten duzunean, lanari ekiten diozunean, intentzio osoz, errazagoa omen da aurrera ateratzea. Nolanahi ere, harrituta gaude eta horrek poztu egiten gaitu!

### - Zein da zuen lanaren onena?

Zainduzen zein gustura gauden ikustea, ekipo ona garela sentitzea, lagunak eta lankideak gara. Eta hori luxu bat da!

### - Eta gogorrena?

Kontziliazioa, hain justu, gure alaben bila korrika ateratzea edo gure bikotekideei erreleboa ematera irtetea... batzuetan beraiekin egoteari uko egitea. Eta egin behar diren kudeaketak, askotan txineraz daudela ematen du.



### - Lanetik kanpo, zer gustatzen zaizue?

Azucena: txakurrarekin paseatzera irtetea, nire alabarekin egotea, familia eta lagunekin uneak partekatzea... eta saskibaloia! Maialen: bizikleta, mendian ibiltzea, nire alabarekin dantzatzea, eta familia eta lagunekin egotea.

### - Bukatzeko, Zigoitiko txokorik gogokoena?

Azucena: Manurgako elizatik ikusten diren bistak. Zigoitiko begiratoki bat bezalakoa da, zabu eta guzti.

Maialen: Muruako gaztainondo eta pagadietako gunea.

**Zainduz Fisioterapia** Urisolo kalean dago, 4 A zenbakian, Gopegin.

T\_945 46 45 86 / 620 769 360

## GALDERA DESEROSOA

- Posible da familia eta lana adostea, bestalde enpresaren arduradunak izanez?

Oraindik puntu batean gaude non aitonek eta amonek asko lagundu behar diguten. Baina bai, posible da eta gure helburua da. Eta orain, gainera, epe motzean!

Zigoitiko Eguneko Arretarako Landa Zentroko informazioa

## Etxeko erroskilla goxo-goxoak

San Blas egunean, Santa Klaran, Aste Santuan...



San Blas eguna eta inauteriak pasa dira jada, baina helduak gara eta bista atzera botatzeko denbora daukagu. Gainera, gustuko dugu bizi ditugun une zoriontsuak erreparatzea. Hemen, Zigoitiko Eguneko Arretarako Landa Zentroan, asko dira gainera. Horrela, oraingo honetan, errossillak eta San Blasak ekarri ditugu gogora.

Aurten ere, Zigoitiko Eguneko Arretarako Landa Zentroan otsailaren 3an San Blas jaia ospatu dugu. Egun horretan zentroko erabiltzaileak saltsaren erdian jartzen dira errossillak egiteko, usadioak agintzen duen moduan. Udalerriko herrietako jaien artean, Gopegiko festa tradizional horretan parte hartzen dugu aspalditik. Ohi den bezala, festaren bezperan gozogintza tailer bat antolatzen dugu, anis errossillak egiteko. Gero mezara eramaten genituen, kafe eta bedeinkazio guztiekin jan ahal izateko.

Aurten, Jon Muñozek, Zigoitiko apaizak, proposatu zigun gurera etortzea jubilatuen klubean meza ematera, horrela errazteko zentroko erabiltzaile guztien parte hartzea. Meza eman eta errossillak bedeinkatu ondoren, bazkari berezi bat egon zen. Jon

geratu zen gurekin eta Arabako abesti tradizionalen pot-pourri bat eskaini zigun. Hor geunden guztiok *emaldian* kantatu genuen eta igarotako sanblasak – beti giro ederrean egindakoak- gogoratu genituen.

Azpimarratzekoa da oso egun atsegina eta dibertigarria izan zela, eta baita zentroko pertsona guztien kolaborazio handia izan zela ere.

Jarraian, inauteriak prestatzen egon ginen eta horren ondorioz lan handiko egunak izan ziren. Eskulan tailer bat programatu zen, familientzako gonbidapenak egiteko. Zentroko inauterietako jai egunean bertan, Errauskine ipuina antzestu genuen eta gure familiak askaltzera gonbidatu genituen, guk egindako kafe eta ogi torradak eskainiz. Nola ez.

**Isidro Saenz de Urturiren eskutik**

## Zotina kentzeko erremediorik onena (baina siestarik gabe utziko zaitu)



Jende askok txarto pasatzen du zotinarekin. Batzuen ustez, haize korronteek daukate errua. Beste batzuek diote purgatorioko arimak direla: bizirik zeudela ahaztu zituzten, eta horrela mendekua hartzen dute. Izan ere, badaude baieztatzen dutenak, bazkaldu ondoren gertatzen bazaizu, sukaldariari zerbait lapurtu diozula adierazten duela.

Edonola ere, gehienak ados daude esaterakoan kentzeko hoberena susto handi bat dela.

Behin batean, neguan, bazkaldu ondoren, Muruako familia bateko anaia nagusiari zotin gogorra sartu zitzaion. Kentzeko modurik ez zegoen, ezinezkoa ur hotzarekin, ezta kili-kiliekin ere... Aitonak esan zuen orduan: 'susto handi bat eman behar diogu. Ez dit uzten siesta egiten'.

Anaia txikia, hori entzun, eta ganbarara igo zen.

Anaia nagusiak, jada mutil handia zenez, bertan zituen gordeta apur bat lehenago izandako jaietan erabili gabe gelditu ziren suziri batzuk. Handiena hartu, bomba kendu eta sukaldeko beheko sura bota zuen. Gero kanpora atera zen, lasai ederrean.

Eztanda izugarria izan zen, goiko auzo osoak entzuteko modukoa. Ingurutako etxeetatik hurbildu zen jendea, oihuka, zer gertatu zen jakin nahian. Zotina berehala kendu zion anaia nagusiari eta bati baino gehiagori, eta aitonari siesta amaitu zitzaion. Artistak, bere aldetik, ipurdia gorrixka izan zuen egun batzuetan. Zergatik egin zuen galdetzen ziotenean, 'aitonak esan zuelako zotina kentzeko hoberena susto handi bat dela' erantzuten zuen.

Larrialdia eta aztoramendua pasatu ondoren, gertatu zenaz jabetzean, sekulako algarak egin zituen jendeak.



### ISIDRO SAENZ DE URTURI

'Telebistarekin, etxeetan ez dago elkarrizketarik jada! Lehen, artoa zuritzen zuten bitartean, aurretik arrosarioa errezatu eta gero hitz egiten zuten familiek'.

Isidro Saenz de Urturik diosku hori. Etnografoa eta Euskal Herriko Etniker taldeko, Arabako Etnografia Mintegiko eta Eusko Ikaskuntzako kolaboratzailea dugu. Udalerrian egin duen lanari esker, hemen *Zigoitiarrak* saila sinatzen du, intenzio nabarmen batekin: beren abenturak irakurtzeak, familia arteko bazkalondoko elkarrizketa piztea.

ENTAVOS

 ON Y LA  
SEÑOR  
VERTA  
NTOS  
D

 Y RESUMEN  
DE NUESTRO  
EL NIV

 NUESTRO  
EL NIV

 NUESTRO  
EL NIV

 ISTRITO  
AROLÉS

## Perpaus sinple eta konplexuak

Eta nola Gorbeia Eskolako neska-mutilek Art Spiegelmanen *Maus* irakurtzen duten

Testu eta argazkien hautaketa: **Javier Arbulu.**



George Steiner *Pentsamenduaren poesian* (2011): 'Gaur, hitzarengandiko urruntasuna, bere ohiko esanahiaren promesarengandikoa, ia dramatiko bihurtu da'. Hizkuntza prest dago. Hizkuntza da gakoa. Agian perpaus sinpleak baino ez ditugu, ez galtzeko. Agian beti izan da horrela. Agian perpaus sinple guztiak, funtsean, perpaus konplexuak dira.

Unax, Mikel, Markel eta Martzelek Art Spiegelmanen *Maus* irakurtzen dute. Gorbeia Eskolako azken kurtsoko ikasleak dira, hain zuzen ere. Bizitzaz betetako garai hauean liburutegia hazi egin da. Hein handi batean, euren bihozkadarekin kutsatu da. *Maus* komiki bat da. Komikian juduak saguak dira eta katuak naziak. Komikiaren sintaxia perpaus sinpletako sintaxia da. Sintaxi erraza erabiliz, Mikelek esaten dit komiki hori eta gainontzekoen arteko ezberdintasuna zein den: 'komiki hori bizitza dela'.

Ez da gauza txikia Mikelek esaten didana.

Sintaxi errazak ondo hartzen du bizitzaren konplexutasuna. Mikelek *Maus* bezalako gauzak, bizitzan dauden gauzak, esan nahi dizkit. Eta hori ez da batere erraza. Hala ere, zuek artikulu hau irakurtzen duzueguerako, baliteke Lorea, Maixi, Irati, Ibone, Iara, Lier, Eiar, Jon eta Joelek Art Spiegelmanen *Maus* irakurrita izatea. Talde horrek baitu bizitzarekin kutsatzeko ahalmena, sintaxiaren erraztasunean birus hutsezin bat izango balitz bezala. Zentzu honetan, Unax, gazte komikiak zabaltzeko gure agente ezkutua, da Kutsatzaile Handia.

Bizitza dago *Kontatuko didazu ipuin bat?* programako gure borondatezko kontalariengan. Txema eta Nacho badoaz, zamalkatze berri baterako lurra prestatu dute. Goiz batean Txema liburutegira hurbildu zen: 'Jendearentzako ozen irakurri nahi dut', esan zidan. Horrela hasten da programa bat. Eta, horrela, era berean, bizitza duen birusa inokulatu da. Guk desio hori ireki besterik ez genuen egin. Desioz betetako

hiru urte daramatzagu eta programa bizirik dago. Hasierako karteletan suaren inguruan eseritako tribu ezberdinetako indioen irudiak erabili genituen: hopi indioak, innu-ak, boskimanoak... Tribu horiek guztiek, haien artean oso ezberdinak direnek, badakite hitza dela gakoa: babesgune bat eta abiapuntu bat.

Zigoitiko gure ipuin kontalariak ere, oso ezberdinak dira elkarren artean. Esan genezake horietako bakoitzak bere tribua osatzen duela. Zaldiz ibiltzeko bere moduagatik bereziko duzu tribu bakoitza, hots, gakoa dagoen lekura hurbiltzeko bere moduagatik. Tribu batzuk, zela jartzen dute, eta eta lasai igotzen dira zaldi gainera. Beste batzuek, elektrikoagoek, zela zoruko altueran jartzen dituzte, zezeldu egiten dute zezeltzen dutenekin eta barre egiten dute barre egiten dutenekin. Batzuek hitzen erritmoa egokitzen diote keinu xume eta boteretsuez egindako beste hizkuntza bati. Izan ere badago tribu bat, memoriaren bridak esku batekin helduta, begiak ixten dituena, *Kattalin* hitza ahoskatzen duela eta *Kattalin* hitzarekin jarraitzen duena lehen ezer ez zegoen bide bat irekiz. Zelaren gainean makurtzen direnak ere badaude, euren ahotsa eta aurpegia eraldatzen duenak, euren ahotsa eta aurpegia bideko elementu geografikoei emanez. Tribu batzuk, aldiz, ez dira konformatzen euren aurpegia emanda; estribuen laguntzarekin finkatuta, imajinatutako zeruraino altxatzen dituzte besoak eta dantza egiten dute, *¡O, Manitu!* bezalako hitz hezigaitzak abesten dituzten bitartean. Nolanahi ere, beste zerbaiten itxura izan dezakeen arren, garrantzitsuena da haietan beti dena sintaxi erraz batean ematen dela. Haiak guztiek indar bera partekatzen dute eta benetako poesia beti ateratzen da bizirik, artifizioaren eta erretorikaren gaineratik, "Bere Bihotzeko Piztiak" hondo-hondoan taupaka irauten baitu.

Are gehiago, nik esango nuke benetako poesia bizirik ateratzen dela, poeten gaineratik. Grekoek, gure tribu arkaiko eta basatienenetako bat, indar horri *Thymós* deitzen zioten.

Nik, oraindik ere zentzugabeko sintaxi burugabearen uhaletatik zintzilikatzen den honek, oraindik ere sintaxi erraz bati nire burua entregatu ahal izateko nahikoa ez dakien honek, *Zubialdeko Zaldien Bultzada Garbia* deitzen diot.

Zeharkatzen zaituen bulkada on hori, eta adorea heltzen den lekuraino eramaten zaituena.



## Ordainketak banketxearen bidez egiten dituzu? Berrikusi kontua, mesedez

Azkenaldi honetan, banketxearen bidez egindako ordainketa batzuekin arazoak egon dira. Hori dela eta, banketxeen bidez bideratutako zergak eta udal tasak ondo mantendu ahal izateko, zergadun guztiei gogoratu nahi diegu SEPA arautegiaren

araberako banketxeetako kontuak eguneratu behar direla, edota erabiltzen ez diren kontu korrontek balio gabetu.

### Info gehiagorako:

T\_ 945 46 40 41 · [zigoitia@zigoitia.eus](mailto:zigoitia@zigoitia.eus)

### Horario de autobuses

1

#### ZIGOITIA - VITORIA - GASTEIZ

| ZESTAFE   | OKOIZTA/ACOSTA | ETXAGUEN | MURUA | LARRINDA | MANURGA | GOPEGI | ERIBE | BURUAGA | BERRIKANO | APODAKA | ETXABARRI IBIÑA | GORBEIA (MERKA-TARITZAGUENA / C. COMERCIAL) | GASTEIZ/VITORIA |
|---|----------------|----------|-------|----------|---------|--------|-------|---------|-----------|---------|-----------------|---|-----------------|
| ASTELEHENETIK OSTIRALERA LANEGUNETAN / LUNES A VIERNES LABORABLES >>>>> |                |          |       |          |         |        |       |         |           |         |                 |   |                 |
| *   | *              | 06:50    | 06:53 | 06:55    | *       | 06:58  | 07:01 | *       | 07:04     | 07:08   | 07:15           | 07:17                                       | 07:26           |
| *   | *              | 08:20    | 08:23 | 08:25    | *       | 08:28  | 08:31 | *       | 08:34     | 08:38   | 08:45           | 08:47                                       | 08:56           |
| *   | *              | 09:50    | 09:53 | 09:55    | *       | 09:58  | 10:01 | *       | 10:04     | 10:08   | 10:15           | 10:17                                       | 10:26           |
| *   | *              | 14:30    | 14:33 | 14:35    | *       | 14:38  | 14:41 | *       | 14:44     | 14:48   | 14:55           | 14:57                                       | 15:06           |
| *   | *              | 16:00    | 16:03 | 16:05    | *       | 16:08  | 16:11 | *       | 16:14     | 16:18   | 16:25           | 16:27                                       | 16:36           |
| *   | *              | 18:40    | 18:43 | 18:45    | *       | 18:48  | 18:51 | *       | 18:54     | 18:58   | 19:05           | 19:07                                       | 19:16           |
| *   | *              | 21:00    | 21:03 | 21:05    | *       | 21:08  | 21:11 | *       | 21:14     | 21:18   | 21:25           | 21:27                                       | 21:36           |
|   |                |          |       |          |         | 22:05  |       |         |           |         | 22:14           | 22:16                                       | 22:25           |
| LARUNBAT, IGANDE ETA JAIEGUNETAN / SABADOS, DOMINGOS Y FESTIVOS >>>>>   |                |          |       |          |         |        |       |         |           |         |                 |   |                 |
| *   | *              | 9:55     | 9:58  | 10:00    | *       | 10:03  | 10:06 | *       | 10:09     | 10:13   | 10:20           | 10:22                                       | 10:31           |
| *   | *              | 12:45    | 12:48 | 12:50    | *       | 12:53  | 12:56 | *       | 12:59     | 13:03   | 13:10           | 13:12                                       | 13:21           |
| *   | *              | 15:55    | 15:58 | 16:00    | *       | 16:03  | 16:06 | *       | 16:09     | 16:13   | 16:20           | 16:22                                       | 16:31           |
| *   | *              | 22:00    | 22:03 | 22:05    | *       | 22:08  | 22:11 | *       | 22:14     | 22:18   | 22:25           | 22:27                                       | 22:36           |

1

#### VITORIA - GASTEIZ - ZIGOITIA

| GASTEIZ/VITORIA   | GORBEIA (MERKA-TARITZAGUENA / C. COMERCIAL) | ETXABARRI IBIÑA | APODAKA | BERRIKANO | BURUAGA | ERIBE | GOPEGI | MANURGA | LARRINDA | MURUA | ETXAGUEN | OKOIZTA/ACOSTA | ZESTAFE |
|---|---|-----------------|---------|-----------|---------|-------|--------|---------|----------|-------|----------|----------------|---------|
| ASTELEHENETIK OSTIRALERA LANEGUNETAN / LUNES A VIERNES LABORABLES >>>>> |   |                 |         |           |         |       |        |         |          |       |          |                |         |
| 07:35   | 07:44                                       | 07:46           | *       | *         | *       | *     | 08:03  | *       | 08:06    | 08:08 | 08:11    | *              | *       |
| 09:05   | 09:14                                       | 09:16           | *       | *         | *       | *     | 09:33  | *       | 09:36    | 09:38 | 09:41    | *              | *       |
| 13:45   | 13:54                                       | 13:56           | *       | *         | *       | *     | 14:13  | *       | 14:16    | 14:18 | 14:21    | *              | *       |
| 15:15   | 15:24                                       | 15:26           | *       | *         | *       | *     | 15:43  | *       | 15:46    | 15:48 | 15:51    | *              | *       |
| 18:00   | 18:09                                       | 18:11           | *       | *         | *       | *     | 18:28  | *       | 18:31    | 18:33 | 18:36    | *              | *       |
| 20:20   | 20:29                                       | 20:31           | *       | *         | *       | *     | 20:48  | *       | 20:51    | 20:53 | 20:56    | *              | *       |
| 21:40   | 21:49                                       | *               |         |           |         |       | 22:00  |         | *        | *     |          |                |         |
| LARUNBAT, IGANDE ETA JAIEGUNETAN / SABADOS, DOMINGOS Y FESTIVOS >>>>>   |   |                 |         |           |         |       |        |         |          |       |          |                |         |
| 09:10   | 09:19                                       | 09:21           | *       | *         | *       | *     | 09:38  | *       | 09:41    | 09:43 | 09:46    | *              | *       |
| 12:00   | 12:09                                       | 12:11           | *       | *         | *       | *     | 12:28  | *       | 12:31    | 12:33 | 12:36    | *              | *       |
| 15:10   | 15:19                                       | 15:21           | *       | *         | *       | *     | 15:38  | *       | 15:41    | 15:43 | 15:46    | *              | *       |
| 21:15   | 21:24                                       | 21:26           | *       | *         | *       | *     | 21:43  | *       | 21:46    | 21:48 | 21:51    | *              | *       |